

96/2020 FORU AGINDUA, irailaren 4koa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariarena, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko 2020-2022 Hizkuntza Plana onartzen duena.

103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde autonomoetan eta menpeko zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duenak, helburutzat du Nafarroako berezko bi hizkuntzen, euskara eta gaztelania, izatearen errealitateari erantzuna ematea, 18/1986 Euskararen Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, aitortzen duen bezala.

Foru Dekretu horren 6. artikulua, hizkuntza plangintzari buruzkoak, xedatzen du Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioko departamentuek beren planak egingo dituztela 3. artikuluan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta plan horien gutxieneko edukia zehazten du.

5. artikuluan, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua izendatzen da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioko departamentuen arteko koordinazio organo izateko, aholkuak eman beharko dizkiena eta haiekin lankidetzan aritu beharko dena Nafarroako Gobernuak hizkuntza politika eta plangintzaren arloetan dituen ildo estrategikoak ezartzeko. Alde horretatik, Euskarabideak eta Lehendakaritzak departamentuko Hizkuntza Plana idatzi dute.

Planak barne ditu departamentuaren egiturari buruzko erreferentzia bat, lege esparruaren deskribapena eta datu demografiko eta soziolinguistikoak. Abiapuntuko egoeraren hasierako diagnostikoa egiten du (zenbat plazatan dagoen ezarrita euskararen ezagutza), langileen euskararen

ezagutzari buruzko datuak ematen ditu, eta departamentuko komunikazio eta baliabideen egoera aztertzen du.

Era berean, ezarritako aldiak garatu beharko diren helburuak zehazten dira, hala nola langileen euskarazko prestakuntza, herritarrei arreta euskaraz emateko neurriak, idatzizko informazio elebiduna, hizkuntza paisaia (errotulazioa eta elementu fisikoak), lanpostu jakin batzuen hizkuntza eskakizuna ezartzea eta lizitatutako zerbitzuen arreta elebidunerako irizpideak. Plana garatzeko antolaketa egituran departamentuko lantalde bat, departamentuen arteko batzorde bat eta Euskarabideako Gobernu Kontseilua finkatzen dira, koordinazio eta garapenerako entitate gisa, eta, azkenik, ebaluazio eta jarraipen mekanismoak ezartzen dira.

Proposamenarekin bat etorritik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak eta Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT

1.º 2020-2022 urteetarako, biak barne, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Hizkuntza Plana onartzea, 103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde autonomoetan eta menpeko zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duenak ezartzen duen moduan eta plana Foru Agindu honen eranskin bezala gehitzea.

2.º Plan hau Gobernu Irekiko atarian argitaratzea, ezagutzera emateko.

3.º Foru Agindu hau eta bere eranskina Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutura, eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Zuzendaritza Nagusietara, Erakunde Autonomoetara eta Idazkaritza Tekniko Nagusira helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Iruña, 2020ko irailaren 4an.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA
BARNEKO KONTSEILARIA

Javier Remírez Apesteguía